

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 5763

*AGINDUA, 2023ko abenduaren 19koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita 2024ko ekitaldirako 202/2015 Dekretuan aurreikusitako dirulaguntzen deialdia (202/2015 Dekretua, urriaren 27koa, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen).*

Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretua 2015eko azaroaren 6an argitaratu zuten Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Aipatutako dekretua zenbait arau aplikatzeko egin zen, hain zuzen: 2014-2020 aldiko ingurumenaren babesaren eta energiaren arloko estatu-laguntzei buruzko jarraibideak (2014-06-28ko AO C 200) eta 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamendua, laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen arabera. Dekretu horren helburua da, funtsean, inbertsioak sustatzea, enpresa onuradunek ingurumen babes-maila jakin bat lor dezaten eta horrekin indarrean dauden Europar Batasuneko araudiak gainditu ditzaten, inbertsio horiekin zuzenean lotutako azterlanak barne.

Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, dagokion deialdiaren agindua urtero argitaratuko da, artikuluan bertan ezarritako edukiarekin argitaratu ere. Ildo horretan, agindu honek, aipatutako dekretuan jasotako manuari jarraikiz, hau finkatzen du: dirulaguntzaren xede izango diren lerro zehatzak; laguntza-lerro eta laguntza-azpillerro bakoitzerako eta esleipen-prozedura bakoitzerako aurrekontu-baliabide zehatzak; eskabideak aurkezteko epea; eskabidea aurkezterakoan entregatu beharreko dokumentazioa; eskabideek baloratuak izateko lortu behar duten gutxieneko puntuazioa; balorazio-epaimahaiak zer portzentajetatik aurrera jakinaraziko dion erakunde eskatzaileari talde ebaluatzaileak egindako inbertsio garbiaren kalkularen emaitza; esleipen-irizpideen aplikazioari dagokion haztapena; inbertsioaren zenbatekoa; proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko eman daitekeen dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa eta gutxieneko zenbatekoa; eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoaren arabera deialdietan beharrezkoa den edukia.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, bat etorritik 2018ko ekainaren 19an onartutako EAeko Emakumeen eta Gizonen VII. Berdintasun Planaren esparruko bere Berdintasun Politikako Dokumentu Programatikoeekin, aintzat hartuko ditu genero-ikuspegia txertatuta duten jarduketak, eta izaera estrategikoa aitortuko die, bat etorritik 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena ezarritako irizpideekin.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionalari jarraikiz, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari dagokio dirulaguntzen araubide hau kudeatzeko eskumena. Zuzendariak hartuko du balorazio-epaimahaiko presidentearen ardura, eta Zuzendaritza horretara atxikitako bi funtzionario izendatuko ditu aipatutako epaimahaia osatzeko.

Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 15. artikuluen arabera, eta dekretu hori indarrean

jarri zenetik egin izan den bezala, agindu honen bidez Ihobe S.A., Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendekoa, erakunde laguntzaile izendatuko da dirulaguntzak kudeatzeko eta aipatutako dekretuaren 15.2 artikuluan zehaztutako funtzioak egiteko, hauetan jasotakoaren arabera: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua eta 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, bermeen araubide orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura egiten diren dirulaguntzak itzultzea arautu eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak ezartzen dituen, araubidea eta eginbeharrak finkatzen dituen.

2021eko urriaren 13an onartu zuen Eusko Jaurlaritzak Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plana (2024), Gobernuak XII. Legegintzaldirako (2020-2024) dituen plan estrategikoen artean dagoena. Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2024 Planaren helburuetako bat da % 10 murriztea BPGren unitateko hondakinen sorrera-tasa.

Ondoren, 2021eko azaroaren 8an, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren agindu baten bidez, Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030 Plana onartu zen: hondakinak baliabide bihurtuz (T-Res-En-R). Dokumentuan jasotako helburuak lortzeko funtsezkoak diren hamar jardueretako bat da inbertsio-plan bat eta ibilbide-orri bat abian jartzea, isurketa minimizatu eta zirkulartasuna sustatuko duten lehentasunezko inbertsioei laguntzeko.

Laguntza-programa honek lagundu egiten du Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2024. Planean eta Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako Planean: hondakinak baliabide bihurtuz (T-Res-En-R) ezarritako helburuak betetzen.

Laguntza hori Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko martxoaren 17ko aginduaren bidez onartutako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2021., 2022. eta 2023. urteetarako dirulaguntzen plan estrategikorekin barruan jasota dago, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan xedatzen den bezala, eta arau horretan jasotako edukiaren arabera.

Horregatik guztiagatik, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura ematen diren dirulaguntzei eta laguntzei aplikatzeko gainerako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kontura emandako gastu-espedituek aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioeko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan ezarritakoa oinarri hartuta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

1.– Dekretu honen xedea da, enpresei Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumena babesteko inbertsioak egiteko eman beharreko dirulaguntzen deialdia egitea 2024ko ekitaldirako, Ingurumena

babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan ezarritakoaren arabera (EHAA, 212. zk., 2015); hona laguntza-lerroak:

a) Ingurumenaren babeserako Batasunaren arauetatik harago joatea ahalbidetuko duten inbertsiorako laguntzak, edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumenaren babes-maila handitzen dutenak.

b) Batasunaren geroko arauetara aurrez egokitzeko laguntzak.

c) Ingurumen-azterketak egiteko laguntzak.

d) Hirugarrenek sortutako hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko inbertsioetarako laguntzak, baldintza metagarri hauek betez gero:

– Inbertsioa beste enpresa batzuek sortutako hondakinak murrizteko erabiltzen da.

– Beste egoera batzuetan, tratatutako material birziklatu edo berrerabiliak ezabatu egingo lirarteke, edo ingurumena gutxiago zainduz tratatuko lirarteke.

– Laguntzek ez diete zeharka kenduko kutsaduraren erantzuleei Batasuneko legediaren arabera beraiek beren gain hartu beharrekoa den edo enpresa-kostu normaltzat jo beharrekoa den edozein karga.

– Inbertsioaren ondorio bakarra ez da birziklatzeko materialen eskaria handitzea material horien bilketa handitu gabe.

– Inbertsioa egungo maila teknikoa gainditzera bideratuko da.

Laguntzak, apartatu honetan ezarritakoaz bestela, onuradunaren beraren hondakinak kudeatzera badaude bideratuta, a) lerroko laguntzetan aplikatuko diren irizpide orokorren arabera ebaluatuko dira.

e) Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat, «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera.

f) Enpresa txiki eta ertainentzako laguntzak, ingurumen-alorreko aholkularitza-zerbitzuetarako.

2.– Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan ezarritako baldintzak eta mugak bete beharko dituzte dirulaguntzek.

2. artikulua.– Diruz lagunduko diren lerro zehatzak.

Deialdi honetan, diruz lagunduko dira aurreko artikuluan zerrendatutako jarduerak, epigrafe hauen barnekotzat har badaitezke:

a) Ingurumenaren babeserako Batasunaren arauetan ezarritako babes-maila baino handiagoa ematera bideratutako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumenaren babes-maila handitzen dutenak.

a.1.– Usainen jariatzea murrizteko inbertsioak.

a.2.– Konposatu organiko lurrunkorren eta konposatu organiko iraunkorren multzoaren barruan kezka sortzen ari diren kutsatzaileen emisioak arazteko edo tratatzeko sistemetan egindako inbertsioak.

a.3.– Galdategiko emisio barreiatuak minimizatzea nabea itxiz, emisio horiek konfinatuz eta xurgatuz.

a.4.– Inbertsioak partikulen emisio barreiatuak kontrolatzeko sistemetan, in situ jarritako sensorreetan eta etengabeko jarraipena eta berehalako jarduerak egitera bideratutako teknologia berrietan oinarritutako sistemetan, hain zuzen.

a.5.– Hondakinak balorizatzeko instalazio berrietarako inbertsioak, Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Planean finkatutako helburuak lortu ahal izateko.

a.6.– Inbertsioak edo ekoizte-prozesua egokitzeko neurriak, Europako zerrendako material kritikoak eta beste metal nagusi batzuk murriztera, berrerabiltzera eta birziklatzera bideratuak.

a.7.– Egiturazko zuntz-zementua kentzera bideratutako jarduketak, ez direnean nahitaez egin beharrekoak, hau da, dena delako udalak ez badu 2024 ekitaldirako planifikatu hura kentzea.

a.8.– Erregai alternatiboen ezaugarriekin alderatuta (HEH, HSB) BAT altua duten hondakinak nazioarteko arauen baldintzetara eta/edo erregaiaren eroslearen edo azken erabiltzailearen arauen baldintzetara egokitzeko inbertsioak, baldin eta, hondakinak kudeatzeko hierarkiaren ikuspuntutik, errekuntza baino balorizazio modu hoberik ez badago. Inbertsioak enpresa hondakin-sortzaileek beraiek eta hondakinen kudeatzaileek egin ahal izango dituzte.

a.9.– Hondakinak prebenitzeko eta minimizatzeke eta hondakinak berrerabiltzeko prestatzeko eragiketak (PXR) ezartzeko edo egokitzeko inbertsioak, besteak beste, zenbait produkturen (ekipoen, osagaien eta piezen) konponketa, berregokitzapena eta birmanufaktura erraztera bideratutakoak, hain zuzen, erabiltzen ez diren ibilgailuen produktuen, tresna elektriko eta elektronikoen eta konpositen konponketa, berregokitzapena eta birmanufaktura erraztera bideratutakoak.

a.10.– Edariak erabilera bakarreko ontzietan ontziratzen dituzten fabrikak edariak ontzi berrerabilgarrietan ontziratzen dituzten fabrika bihurtzeko inbertsioak eta norberaren ontziak edo hirugarrenenak garbitzeko sistemetarako eta ontziak berrerabiltzeko behar diren instalazio lagungarrietarako inbertsioak.

a.11.– Birziklatu ezin diren kutxak eta/edo ontziak edo erabilera bakarreko ontziak ontzi berrerabilgarriekin ordeztzeko inbertsioak (adibidez, arraina ontziratzeke poliestireno hedatuaren ordezkutxa berrerabilgarriak jartzea).

a.12.– On site edo in site teknikak aplikatzea, jardunean dauden enpresen lurzoru eraldatuen kalitatea hobetzeko.

a.13.– Hondeatutako lurak biltegitratzeko eta, ondoren, berrerabiltzeko edo balioztatzeke erabiliko diren eta egokitzapen horretarako ingurumen-organoak helarazitako irizpideak betetzen dituzten kokalekuak egokitzeko inbertsioak edo neurriak.

a.14.– Aginduan eta hura garatzen duen dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainerakoak.

b) Batasunaren geroke arauetara aurrez egokitzeko laguntzak.

c) Ingurumen-azterketak egiteke laguntzak.

c.1.– Zabortegiaz gain beste helmugarik ez duten hormigoien, hormigoizko prefabrikatuen, asfaltoen eta morteroen bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta ingurumenekoa aztertzeko lanak; hormigoi, asfalto eta mortero horiek moldekatze kimikoko hondarrak eta/edo altzairu berezi eta herdoilgaitzen zepak eta/edo burdinazkoa ez den galdategietako zepak badituzte. Azterketen

barruan zahartze-probak egingo dira, 2 urteko epea aintzat hartuta, baita <https://www.ihobe.eus> helbidean eskura dagoen protokoloan bildutako probak ere.

c.2.– Berotegi-efektuko gasen edo euri azidoko gasen emisioak minimizatu daitezzen, gasak tenperatura baxuko kondentsazioaren bidez tratatuz, eta gasak haien tratamendu biologikoaren bidez tratatu daitezzen sustatzera bideratutako azterketak.

c.3.– Kutsatzaile berriei edo iraunkorrei (PFO, PFOA, PBDE, HBCD, TBBPA, SCCP, ftalatoak, etab.) buruzko azterketak hondakinetan eta lurzoruetan, hobeto ulertzeko nola hedatzen diren ingurumenean eta zer presentzia duten hondakin-fluxuetan, eta ingurumenari buruzko araubidean irizpide izan daitezkeenak ezartzeko; bai eta, hondakin eta lurzoruei dagokienez, kutsatzaile organiko iraunkorren estatu mailako planaren jarduketa-lerroak garatzen dituzten azterlanak ere.

c.4.– Eraikuntzako eta eraispeneko hondakin berriei eta arriskutsuei buruzko azterketak.

c.5.– Eraikitze eta eraikuntzak altxatzeko obra proiektuetan soluzio industrializatuak sartzeko azterketak, arreta berezia jarriz bigarren mailako materialak eta biomasatik datozen material zatiak dituzten obretan. Proposamenari abala eman beharko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntza industrializatu jasangarriaren gidan jasotako erabakiak hartzeko kalkulu-tresna aplikatuz.

c.6.– Produkzio-ziklo bateragarrietan berriz sar daitezkeen igeltsuzko materialen eta behar bezala bereizitako kontsumo aurreko eta/edo ondorengo material isolatzaileen hondakin balorizagarrien alderantzizko logistikako sistemen bideragarritasun-azterketak.

c.7.– Usainen jariatzea minimizatzeko borondatezko azterketa olfatometrikoak, betiere baldintza hauen pean egitekoak:

– Sorburu konfinatuak eta barreiatuak identifikatu, eta haien usain jarioak karakterizatu egin beharko dira.

– Laginketa, usainaren kontzentrazioa, hedatzeko abiadura eta usain jarioaren zehaztapena arau honen arabera egingo da: UNE-EN 13725:2022 «Sorburu egonkorren jarioak. Usainaren kontzentrazioa olfatometria dinamikoaren eta usain jarioaren tasaren bitartez zehaztea». UNE-EN 13725 arauaren arabera ziurtagiria duten erakundeek zehaztuko dituzte instalazioko usain jarioak.

– Azterketa olfatometrikoa egin beharko da usaina barreiatzeko eredia baliatuz.

c.8.– Bigarren mailako materialen ingurumen-kalitatea egokitzeko eta egiaztatzeko azterketak.

c.9.– Edariak ontziratzen dituzten enpresentzako azterketak, erabilera bakarreko ontzietan oinarritutako eredu batetik ontzi berrerabilgarrietan oinarritutako eredu batera igarotzea teknikaren, ekonomiaren eta ingurumenaren aldetik bideragarria den aztertzeko edota sistemaren oinarritzko ingeniarietza edo xehetasunezkoa diseinatzeko.

c.10.– Plastikozko ontzien birziklagarritasuna hobetzeko azterketak, ontzien zuzentarautik eratorritako arau bateratuek ezartzen dutenaren arabera: UNE-EN 13427: arauen erabilera; 13428: prebentzioa; 13429: berrerabilpena; 13430: birziklapena; 13431: balorizazio energetikoa; 13432: biodegradazioa.

c.11.– ErP ekodiseinuko zuzentzarauaren esparruan Europako Batzordearen 45552-9 zirkulartasuneko CEN mandatutik eratorritako arauak eta estandarrak aplikatzera bideratutako bideragarritasun-azterketak.

c.12.– Hondakinak balorizatzeko instalazio berrietarako proiektuen aurretiazko bideragarritasun-azterketak, Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Planean finkatutako helburuak lortu ahal izateko.

c.13.– Euskal Autonomia Erkidegoko instalazio industrialetan eta nekazaritza- eta industria-instalazioetan sortutako biohondakinak kudeatzeko autokonpostaje-instalazioen bideragarritasun-azterketak.

c.14.– Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Planean lehentasunezko-tzat jo diren beste ingurumen-azterketa batzuk.

c.15.– Lurzorua kutsatu dezaketen jarduketak egin diren jardunik gabeko lurzoruen azterketak, lurzoruen titularra ez bada kutsaduraren erantzulea eta kutsatzailea izan daitekeen jardueraren titularrak egin ez badu azterketarik.

c.16.– Aginduan eta hura garatzen duen dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten ingurumen-inbertsioak egin aurreko beste bideragarritasun-azterketa batzuk.

c.17.– Produktu jakin batzuk fabrikatzeko erabiltzen diren lehengai plastikoen ezaugarriak arautzen dituzten arau teknikoak betetzen direla egiaztatzeko inbertsioak, azpiproduktu gisa sortu edo tratatutako hondakin plastikoak deklaratzeko edo hondakin izateari uzteko.

d) Hirugarrenek sortutako hondakinen birziklapenerako eta berrerabilpenerako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, betiere, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 2. artikuluko 4. puntuko baldintza metagarriak betetzen badira:

d.1.– Plastikokoak identifikatzeko eta bereizteko inbertsioak, hobeto birziklatzea xede; batez ere, sugar-atzeratzaile bromatudun plastikoak.

d.2.– Bizitzaren amaieran dauden ibilgailuetako hondakinak birziklatzera eta balorizatzen bideratutako inbertsioak, bai eta produktuak, osagaiak eta pieza konpondu, berregokitu eta birmanufakturatzen bideratutakoak ere, bereziki, tresna elektriko-elektronikoen hondakinenak, edo produktuak (serie handikoak) konposite birziklatuetan oinarrituta fabrikatzera bideratutakoak.

d.3.– Inbertsioak balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak eta itsasontziak desmuntatzeko eta deskutsatzeko ekipamenduetan/makinetan, deskutsatzea hobetzeko eta osagaiak berrerabilitzea eta eragiketa horietatik eratorritako hondakinak birziklatzea eta balorizatzea sustatzeko.

d.4.– Inbertsioak eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak nahastea galarazteko eta nahastuta egon daitezkeen hondakin horiek bereizi ahal izateko –bereizketaren ondoriozko frakzioak balorizatu ahal daitezen– gailuetan/makinetan.

d.5.– Plastikohondakinak eraldatzen edo kudeatzen dituzten industrietan, inbertsioak egitea galautsa eta mikroplastikoak biltzeko, biltegitratzeko eta horien isurketak prebenitzeko ekipamenduetan; besteak beste, xurgagailuetan, kale-garbigailuetan eta bilgailuetan, bai eta babes-hesietan ere, arrisku handien dagoen tokietan, hala nola ura biltzeko kutxatiletan.

d.6.– Ibilgailuak konpontzeko lantegietan osagaien konponketa aurreratua egiteko beharrezko ekipoak eta aktiboak (Ni-MH bateria hibridoak edo antzekoak mantentzeko eta berreskuratzeko diagnostiko-ekipoak, plastikozko pieza espezifikoetarako edo errekontza-ibilgailua ibilgailu elektriko bihurtzeko euskailuetarako 3D inprimagailuak, ECUak birprogramatzeko ekipoak (PC-a eta Pass-thru komunikazio interfazea duen kanpoko bateria-sistema barne), injektore piezoelektrikoak eta EGR balbulak diagnostikatzeko ekipoak, pieza plastikoak eta aluminiozkoak konpontzeko ekipoak).

d.7.– Aginduan eta hura garatzen duen dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainerakoak.

e) Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera.

f) ETEen kasuan, ingurumen-arloko kanpo-aholkularitzako zerbitzuetatik eratorritako kanpo-kostuak finantzatzeko laguntzak. Deialdi honetan azpillerro hauek bakarrik lagunduko dira diruz:

f.1.– EMAS Ingurumenaren Kudeaketarako Europako Sistemaren Erregistroan inskribatzeko laguntzak, bai aurretiazko aholkularitzarako, bai egiaztapen-erakundearen kostuetarako.

f.2.– EMAS Erregistroa berritzeko laguntzak. Ez da berrikuntzarako laguntzarik emango bulegoak baino ez diren jardueretarako (bankuak, aseguruak, higiezin agentziak, aholkularitza, etab.), ezta erregistroa berritzearekin lotuta ez dauden urteko auditorietarako ere.

f.3.– Laguntzak hauetarako: Ekodiseinuko UNE-EN ISO 14006 Araua ezartzeko eta ziurtatzeko; hirugarren batek produktuak, antolamenduak edo zerbitzuak duen ingurumen-inpaktua –bizi-zikloaren ikuspegia duten metodologia normalizatuen bidez– zehaztu eta egiaztatzeke, eta hirugarren batek egiazta ditzakeen aitortzenak lortzeko, hala nola ingurumen-aztarnak eta ekoetiketak (I. mota edo III. motako produktuaren ingurumen-adierazpenak). Ez da laguntzarik emango bulego jardura hutsak (bankuak, aseguruak, higiezin agentziak, aholkularitza, etab.) diren jarduketan ingurumen-aztarna ezartzeko eta egiaztatzeke.

f.4.– Kutsa dezaketan jarduerak izan dituen lurzoruaren kalitatea aitortzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera, baldin eta egin beharreko azterketen zenbatekoa guztira gehienez hogeita mila (20.000) euroa bada.

f.5.– Piezetan eta produktuetan bigarren mailako plastikoa sartzeko saiakuntzak eta homologazioak. Saiakuntza horien barruan hauek egon daitezke: propietateak hobetzea aditibazioaren bitartez, aplikazio baterako eraldaketa-prozesurik onena zehaztea, suarekiko portaera hobetzea, akatsak eta konposizio kimikoa identifikatzea maila mikrometrikotan eta/edo nanometrikotan, eta, kasu guztietan, bizi-zikloaren analisi konparatibo sinplifikatua egitea.

f.6.– Hondakinak balorizatzeko eragiketetan kalitate-sistema egiaztagarriak ezartzeko laguntzak, hondakin batek hondakin izateari noiz uzten dion zehazten duten Europako erregelamenduetan eta ministerio-aginduetan adierazitako irizpideak betetzen direla frogatu ahal izateko sistemak, hain zuzen.

f.7.– Hondakinak balorizatzeko eta ezabatzeko eragiketekin zerikusia duen informazioaren kudeaketa informatizatzeko laguntzak; eragiketa horiek hondakinaren kudeaketa egiaztatzea ahalbidetzen diete ekoizleei eta hondakinetatik datozen produktuen jatorria egiaztatzea kontsumitzaileei.

### 3. artikulua.– Onuradunak.

1.– Industria-jardueretan, merkataritza jardueretan edo irabazi-asmoko zein irabazi-asmorik gabeko zerbitzuak emateko jardueretan aritzen den zuzenbide pribatuko edozein pertsona fisiko edo juridiko izan daiteke agindu honetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun, hala nola pertsona horiek osatutako elkarteak interes orokorrak eta komunak ordezkatzeko badituzte eta 202/2015 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte (202/2015 Dekretua,

urriaren 27koa, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzekoa).

Honako hauek laguntza hauetatik kanpo geldituko dira: tokiko erakundeak, erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak, baita sektore publikoko beste erakunde batzuk ere, hala nola fundazio edo partzuergo publikoak.

ETEentzako laguntza-lerroan ingurumeneko aholkularitza-zerbitzuen laguntza lortzeko, eskatzaileak enpresa txiki edo ertainaren izaera izan beharko du, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan, mikroenpresa, enpresa txiki eta enpresa ertainen definizioari buruzkoan, ezarritakoarekin bat.

2.– Dirulaguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, amaitu egin beharko dira itzultze- edo zehapen-prozedurak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek emandako antzeko dirulaguntzen esparruan hasita eta oraindik izapidetze-aldian badaude.

Nolanahi ere, ezin izango dira agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak ordainduta ez dituzten pertsonak edo erakundeak, erregelamendu bidez zehaztutako moduan.

3.– Arau honetan jasotako dirulaguntzak ezin izango dituzte eskuratu dirulaguntza edo laguntza publikoa eskuratzea eragozten duen debekuren bat edo administrazio-zehapen edo zehapen penalen bat duten erakundeek, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikuluan ezarritakoak barne, baldin eta neurri zuzentzaile egokiak betetzen ez badira eta zehapena ordaintzen ez bada.

Era berean, ezin izango dute dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten enpresek, ez eta 50 langile baino gehiagoko enpresek ere, baldin eta egiaztatzen ez badute sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta hari aurre egiteko neurriak ezarri dituztela, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuko legedian ezarritakoaren arabera.

4.– 30.000 eurotik gorako dirulaguntzei dagokienez, merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeari lotutako irabazi-asmoa duten pertsona fisiko eta juridikoek egiaztatu beharko dute, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan 3 bis apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz, abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak betetzen dituztela onuradun izateko.

5.– Ezingo dute dirulaguntzarik jaso Batzordeak laguntza bat legez kontraktat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jotzea erabaki ondoren berreskuratzeko agindu bat oraindik betetzeko duten enpresek, edo krisian dauden enpresek, Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 1.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz; erregelamendu horren bidez, zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta (2014ko ekainaren 26ko EBAO, L 187).

6.– Halaber, agindu honetan arautzen diren laguntzak eskuratzeko, eskatzaileek egunean egon beharko dute zerga-betebeharrei eta gizarte-segurantzarekin dituzten betebeharrei dagokienez.

Deialdi honen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du dirulaguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela, behar beste aldiz, modu



arrazoituan aurka egiten ez badu, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta horrela gertatzen bada, aipatu egiaztapenak aurkeztu beharko dira.

7.– Laguntza ordaintzeko, pertsona edo erakunde onuradunak inskribatuta egon beharko du Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan. Pertsona edo erakunde eskatzaileak, eskabidea formulatzean, alta eman ahal izango du edo alde zuzenetik gehitutako informazioa aldatu ahal izango du, dagokion moduan, modu telematikoan, [https://www.euskadi.eus/web01-s2oga/eu/contenidos/informacion/regtelter\\_infor/eu\\_rtt/index.shtml](https://www.euskadi.eus/web01-s2oga/eu/contenidos/informacion/regtelter_infor/eu_rtt/index.shtml) helbidean jasotako jarraibideen arabera.

Nolanahi ere, Hirugarrenen Erregistroan aurreko paragrafoan aipatzen den ordainketa egiteko datuen alta edo aldaketa interesdunak berak egin beharko du bitarteko elektronikoen bidez, edo haren izenean dagoen ordezkari batek, betiere azken hori alta emanda badago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/ordezka-riak>) eskuragarri dagoen Ahalordetzeen Erregistro elektronikoa.

Dena dela, jarduera hori ez da nahitaezkoa izango eskabidea izapidetzeko, eta horren ondorengo edozein unetan gauzatu ahal izango da, baita emakidaren ondoren ere. Hala ere, ezin izango da eskatu emandako laguntzaren ordainketarik benetan bete gabe.

4. artikulua.– Esleipenerako eta kuantifikaziorako prozedurak.

1.– Ondorengo prozedura hauek erabiliko dira agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak esleitzeko:

1.1.– Prozedura arrunta: norgehiagoka eta hainbanaketaren bidezko kuantifikazioa.

Prozedura arruntean, agindu honen 2. artikuluko a), b), c), d) eta e) letretan jasota dauden diruz laguntzeko moduko lerroak lagunduko dira.

Prozedura horretan, aginduaren 12. artikuluan ezartzen den gutxieneko puntuazioa lortzen edo gainditzen duten proiektuak baino ez dira diruz lagunduko.

1.2.– Prozedura sinplifikatua: norgehiagokarik gabekoa.

Prozedura sinplifikatua, agindu honen 2. artikuluko a), b), c), d), e) eta f) letretan jasota dauden diruz laguntzeko moduko lerroak lagunduko dira.

Prozedurako lerro bakoitzera bideratutako aurrekontua eskaera onartuen kopuruarekin zati-tuko da, eta ezingo da inola ere gainditu Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan finkatutako gehi-eneko inbertsio-ehunekoa, ezta agindu honetan ezartzen den gehi-eneko laguntza-zenbatekoa ere.

2.– Agindu honen 2. artikuluko a), b), c), d) eta e) letretan jasota dauden lerroetako dirulaguntzak prozedura arruntaren bitartez edo prozedura sinplifikatuaren bitartez esleituko dira, aintzat hartuta aukeratutako proiektuan egingo den inbertsioaren zenbatekoa.

Prozedura arruntera jotzeko inbertsioaren gutxieneko zenbatekoa (alegia, zenbateko horretara iristen ez diren inbertsioek prozedura sinplifikatua jo beharko dutena) honakoa da:

a) Ingurumenaren babeserako Batasunaren arauetan ezarritako babes-maila baino handiagoa ematera bideratutako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumenaren babes-maila handitzen dutenak.

- a.1.– Usainen jariatzea murrizteko inbertsioak. Hogei mila (20.000) euro.
- a.2.– Konposatu organiko lurrunkorren eta konposatu organiko iraunkorren multzoaren barruan kezka sortzen ari diren kutsatzaileen emisioak arazteko edo tratatzeko sistemetan egindako inbertsioak. Berrogei mila (40.000) euro.
- a.3.– Galdategiko emisio barreiatuak minimizatzea nabea itxiz, emisio horiek konfinatuz eta xurgatuz. Berrogei mila (40.000) euro.
- a.4.– Inbertsioak partikulen emisio barreiatuak kontrolatzeko sistemetan, in situ jarritako sensoreetan eta etengabeko jarraipena eta berehalako jarduerak egitera bideratutako teknologia berrietan oinarritutako sistemetan, hain zuzen. Ehun eta hirurogei (160.000) mila euro.
- a.5.– Hondakinak balorizatzeko instalazio berrietarako inbertsioak, Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Planean finkatutako helburuak lortu ahal izateko. Zortziehun mila (800.000) euro.
- a.6.– Inbertsioak edo ekoizte-prozesua egokitzeko neurriak, Europako zerrendako material kritikoak eta beste metal nagusi batzuk murriztera, berrerabiltzera eta birziklatzera bideratuak. Berrogei mila (40.000) euro.
- a.7.– Egiturazko zuntz-zementua kentzera bideratutako jarduketak, ez direnean nahitaez egin beharrekoak, hau da, dena delako udalak ez badu 2024 ekitaldirako planifikatu hura kentzea. Laurogei mila (80.000) euro.
- a.8.– Erregai alternatiboen ezaugarriekin alderatuta (HEH, HSB) BAT altua duten hondakinak nazioarteko arauen baldintzetara eta/edo erregaiaren eroslearen edo azken erabiltzailearen arauen baldintzetara egokitzeko inbertsioak, baldin eta, hondakinak kudeatzeko hierarkiaren ikuspuntutik, errekuntza baino balorizazio modu hoberik ez badago. Ehun eta berrogei (140.000) mila euro.
- a.9.– Hondakinak prebenitzeko eta minimizatzeke eta hondakinak berrerabiltzeko prestatzeko eragiketak (PXR) ezartzeko edo egokitzeko inbertsioak, besteak beste, zenbait produkturen (ekipoen, osagaien eta piezen) konponketa, berregokitzapena eta birmanufaktura erraztera bideratutakoak, hain zuzen, erabiltzen ez diren ibilgailuen produktuen, tresna elektriko eta elektronikoen eta konpositen konponketa, berregokitzapena eta birmanufaktura erraztera bideratutakoak. Berrogei mila (40.000) euro.
- a.10.– Edariak erabilera bakarreko ontzietan ontziratzen dituzten fabrikak edariak ontzi berrerabilgarrietan ontziratzen dituzten fabrika bihurtzeko inbertsioak eta norberaren ontziak edo hirugarrenenak garbitzeko sistemetarako eta ontziak berrerabiltzeko behar diren instalazio lagungarrietarako inbertsioak. Hirurogei mila (60.000) euro.
- a.11.– Birziklatu ezin diren kutxak eta/edo ontziak edo erabilera bakarreko ontziak ontzi berrerabilgarriekin ordeztzeko inbertsioak (adibidez, arraina ontziratzeke poliestireno hedatuaren ordezkutxa berrerabilgarriak jartzea). Hogei mila (20.000) euro.
- a.12.– On site edo in site teknikak aplikatzea, jardunean dauden enpresen lurzoru eraldatuen kalitatea hobetzeko. Bost mila (5.000) euro.
- a.13.– Hondeatutako lurrak biltegitratzeko eta, ondoren, berrerabiltzeko edo balioztatzeke erabiliko diren kokalekuak egokitzeko inbertsioak edo neurriak. Berrogei mila (40.000) euro.

a.14.– Aginduan eta hura garatzen duen dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainerakoak. Berrogei mila (40.000) euro.

b) Batasunaren geroko arauetara aurrez egokitzeko laguntzak. Berrogei mila (40.000) euro.

c) Ingurumen-azterketak egiteko laguntzak.

c.1.– Zabortegeiaz gain beste helmugarik ez duten hormigoien, hormigoizko prefabrikatuena, asfaltoen eta morteroen bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta ingurumenekoa aztertze lanak; hormigoia, asfalto eta mortero horiek moldekatze kimikoko hondarrak eta/edo altzairu berezi eta herdoilgaitzen zepak eta/edo burdinazkoa ez den galdategietako zepak badituzte. Azterketen barruan zahartze-probak egingo dira, 2 urteko epea aintzat hartuta, baita <https://www.ihobe.eus> helbidean eskura dagoen protokoloan bildutako probak ere. Hogei mila (20.000) euro.

c.2.– Berotegi-efektuko gasen edo euri azidoko gasen emisioak minimizatu daitezzen, gasak tenperatura baxuko kondentsazioaren bidez tratatuz, eta gasak haien tratamendu biologikoaren bidez tratatu daitezzen sustatzera bideratutako azterketak. Hogei mila (20.000) euro.

c.3.– Kutsatzaile berriei edo iraunkorrei (PFO, PFOA, PBDE, HBCD, TBBPA, SCCP, ftalatoak, etab.) buruzko azterlanak hondakinetan eta lurzoruetan, hobeto ulertzeko nola hedatzen diren ingurumenean eta zer presentzia duten hondakin-fluxuetan, eta ingurumenari buruzko araubidean irizpide izan daitezkeenak ezartzeko; bai eta, hondakin eta lurzoruei dagokienez, kutsatzaile organiko iraunkorren estatu mailako planaren jarduketak-lerroak garatzen dituzten azterketak ere. Hogei mila (20.000) euro.

c.4.– Eraikuntzako eta eraispenerako hondakin berriei eta arriskutsuei buruzko azterketak. Hogei mila (20.000) euro.

c.5.– Eraikitze eta eraikuntzak altxatzeko obra proiektuetan soluzio industrializatuak sartzeko azterketak, arreta berezia jarriz bigarren mailako materialak eta biomasatik datozen material zatiak dituzten obretan. Proposamenari abala eman beharke zaio Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntza industrializatu jasagarriaren gidan jasotako erabakiak hartzeko kalkulu-tresna aplikatuz. Hogei mila (20.000) euro.

c.6.– Produkzio-ziklo bateragarrietan berriz sar daitezkeen igeltsuzko materialen eta behar bezala bereizitako kontsumo aurreko eta/edo ondorengo material isolatzaileen hondakin balorizagarrien alderantzizko logistikako sistemen bideragarritasun-azterketak. Hogei mila (20.000) euro.

c.7.– Usainen jariatzea minimizatzeko borondatezko azterketa olfatometrikoak, betiere baldintza hauen pean egitekoak: Hogei mila (20.000) euro.

c.8.– Bigarren mailako materialen ingurumen-kalitatea egokitzeko eta egiaztatze azterketak. Hogei mila (20.000) euro.

c.9.– Edariak ontziratzen dituzten enpresentzako azterketak, erabilera bakarreko ontzietan oinarritutako eredu batetik ontzi berrerabilgarrietan oinarritutako eredu batera igarotzea teknikaren, ekonomiaren eta ingurumenaren aldetik bideragarria den aztertze, edota sistemaren oinarritzko ingeniarietza edo xehetasunezkoa diseinatze. Hogei mila (20.000) euro.

c.10.– Plastikozko ontzien birziklagarritasuna hobetzeko azterlanak, ontzien zuzentarautik eratorritako arau bateratuek ezartzen dutenaren arabera: UNE-EN 13427: arauen erabilera; 13428: prebentzioa; 13429: berrerabilpena; 13430: birziklapena; 13431: balorizazio energetikoa; 13432: biodegradazioa. Hogei mila (20.000) euro.

c.11.– ErP ekodiseinuko zuzentarauaren esparruan Europako Batzordearen 45552-9 zir-kulartasuneko CEN mandatutik eratorritako arauak eta estandarrak aplikatzera bideratutako bideragarritasun-azterketak. Hogei mila (20.000) euro.

c.12.– Hondakinak balorizatzeko instalazio berrietarako proiektuen aurretiazko bideraga-rritasun-azterketak, Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Planean finkatutako helburuak lortu ahal izateko. Hogei mila (20.000) euro.

c.13.– Euskal Autonomia Erkidegoko instalazio industrialetan eta nekazaritza- eta industria-instala-zioetan sortutako biohondakinak kudeatzeko autokonpostaje-instalazioen bideragarritasun-azterketak. Hogei mila (20.000) euro.

c.14.– Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako Planean lehentasunez-kotzat jo diren beste ingurumen-azterlan batzuk. Hogei mila (20.000) euro.

c.15.– Lurzorua kutsatu dezaketen jarduketak egin diren jardunik gabeko lurzoruen azterketak, lurzoruen titularra ez bada kutsaduraren erantzulea eta kutsatzailea izan daitekeen jardueraren titularrak egin ez badu azterketarik. Hogei mila (20.000) euro.

c.16.– Aginduan eta hura garatzen duen dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituz-ten ingurumen-inbertsioak egin aurreko beste bideragarritasun-azterketa batzuk. Hogei mila (20.000) euro.

c.17.– Produktu jakin batzuk fabrikatzeko erabiltzen diren lehengai plastikoen ezaugarriak arautzen dituzten arau teknikoak betetzen direla egiaztatzeko inbertsioak, azpiproduktu gisa sortu edo tratatutako hondakin plastikoak deklaratzeko edo hondakin izateari uzteko. Hogei mila (20.000) euro.

d) Hirugarrenek sortutako hondakinen birziklapenerako eta berrerabilpenerako inbertsioak finan-tzatzeko laguntzak, betiere, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 2. artikuluko 4. puntuko baldintza metagarriak betetzen badira:

d.1.– Plastikoak identifikatzeko eta bereizteko inbertsioak, hobeto birziklatzea xede; batez ere, sugar-atzeratzaile bromatudun plastikoak. Ehun eta berrogei (140.000) mila euro.

d.2.– Bizitzaren amaieran dauden ibilgailuetako hondakinak birziklatzera eta balorizatzaera bideratutako inbertsioak, bai eta produktuak, osagaiak eta piezak konpondu, berregokitu eta bir-manufakturatzera bideratutakoak ere, bereziki, tresna elektriko-elektronikoen hondakinenak, edo produktuak (serie handikoak) konposite birziklatuetan oinarrituta fabrikatzera bideratutakoak. Berrogei mila (40.000) euro.

d.3.– Inbertsioak balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak eta itsasontziak desmuntatzeko eta deskutsatzeko ekipamenduetan/makinetan, deskutsatzea hobetzeko eta osagaiak berrera-biltzea eta eragiketa horietatik eratorritako hondakinak birziklatzea eta balorizatzea sustatzeko. Laurogei mila (80.000) euro.

d.4.– Inbertsioak eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak nahastea galarazteko eta nahastuta egon daitezkeen hondakin horiek bereizi ahal izateko –bereizketaren ondoriozko frakzioak balori-zatu ahal daitezen– gailuetan/makinetan. Berrogei mila (40.000) euro.

d.5.– Plastikohondakinak eraldatzen edo kudeatzen dituzten industrietan, inbertsioak egitea galautsa eta mikroplastikoak biltzeko, biltegitartzeko eta horien isurketak prebenitzeko ekipamenduetan; besteak beste, xurgagailuetan, kale-garbigailuetan eta bilgailuetan, bai eta babes-hesietan ere, arrisku handien dagoen tokietan, hala nola ura biltzeko kutxatiletan. Berrogei mila (40.000) euro.

d.6.– Ibilgailuak konpontzeko lantegietan osagaien konponketa aurreratua egiteko beharrezko ekipoak eta aktiboak (Ni-MH bateria hibridoak edo antzekoak mantentzeko eta berreskuratzeko diagnostiko-ekipoak, plastikozko pieza espezifikoetarako edo errekontza-ibilgailua ibilgailu elektriko bihurtzeko euskailuetarako 3D inprimagailuak, ECUak birprogramatzeko ekipoak (PC-a eta Pass-thru komunikazio interfazea duen kanpoko bateria-sistema barne), injektore piezoelektrikoak eta EGR balbulak diagnostikatzeko ekipoak, pieza plastikoak eta aluminiozkoak konpontzeko ekipoak...). Hamar mila (10.000) euro.

d.7.– Aginduan eta hura garatzen duen dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainerakoak. Laurogei mila (80.000) euro.

e) Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera. Hogei mila (20.000) euro.

#### 5. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

1.– Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei zuzendutako dirulaguntzen deialdi honetarako aurrekontuko diru-zuzkidura, guztira, bost milioi (5.000.000) eurokoa izango da, honela banatuta:

– Hiru milioi eta berrogeita hamar mila (3.050.000) euro, prozedura arruntaren bidez esleitutako proiektuetarako.

– Milioi bat bederatzehun eta berrogeita hamar mila (1.950.000) euro, prozedura sinplifikatu bidez esleitutako proiektuetarako.

2.– Prozedura sinplifikatuan, lerroetarako eta azpillerroetarako zuzkidura modu honetan banatuko da:

a) Ingurumenaren babeserako Batasunaren arauetan ezarritako babes-maila baino handiagoa ematera bideratutako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumenaren babes-maila handitzen dutenak. Milioi bat eta hirurehun eta laurogei mila (1.380.000) euro:

a.1.– Usainen jariatzea murrizteko inbertsioak.

a.2.– Konposatu organiko lurrunkorren eta konposatu organiko iraunkorren multzoaren barruan kezka sortzen ari diren kutsatzaileen emisioak arazteko edo tratatzeko sistemetan egindako inbertsioak.

a.3.– Galdategiko emisio barreiatuak minimizatzea nabea itxiz, emisio horiek konfinatuz eta xurgatuz.

a.4.– Inbertsioak partikulen emisio barreiatuak kontrolatzeko sistemetan, in situ jarritako sensorreetan eta etengabeko jarraipena eta berehalako jarduerak egitera bideratutako teknologia berrietan oinarritutako sistemetan, hain zuzen.

a.5.– Hondakinak balorizatzeke instalazio berrietarako inbertsioak, Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Planean finkatutako helburuak lortu ahal izateko.

a.6.– Inbertsioak edo ekoizte-prozesua egokitzeko neurriak, Europako zerrendako material kritikoak eta beste metal nagusi batzuk murriztera, berrerabiltzera eta birziklatzera bideratuak.

a.7.– Egiturazko zuntz-zementua kentzera bideratutako jarduketak, ez direnean nahitaez egin beharrekoak, hau da, dena delako udalak ez badu 2024 ekitaldirako planifikatu hura kentzea.

a.8.– Erregai alternatiboen ezaugarriekin alderatuta (HEH, HSB) BAT altua duten hondakinak nazioarteko arauen baldintzetara eta/edo erregaiaren eroslearen edo azken erabiltzailearen arauen baldintzetara egokitzeko inbertsioak, baldin eta, hondakinak kudeatzeko hierarkiaren ikuspuntutik, errekuntza baino balorizazio modu hoberik ez badago.

a.9.– Hondakinak prebenitzeko eta minimizatzeko eta hondakinak berrerabiltzeko prestatzeko eragiketak (PXR) ezartzeko edo egokitzeko inbertsioak, besteak beste, zenbait produkturen konponketa, berregokitzapena eta birmanufaktura erraztera bideratutakoak, hain zuenen, erabiltzen ez diren ibilgailuen produktuak (ekipoak, osagaiak eta piezak), tresna elektriko eta elektronikoak eta konpositak.

a.10.– Edariak erabilera bakarreko ontzietan ontziratzen dituzten fabrikak edariak ontzi berrerabilgarrietan ontziratzen dituzten fabrika bihurtzeko inbertsioak eta norberaren ontziak edo hirugarrenenak garbitzeko sistemetarako eta ontziak berrerabiltzeko behar diren instalazio lagungarrietarako inbertsioak.

a.11.– Birziklatu ezin diren kutxak eta/edo ontziak edo erabilera bakarreko ontziak ontzi berrerabilgarriekin ordeztzeko inbertsioak (adibidez, arraina ontziratzeke poliestireno hedatuaren ordezkutxa berrerabilgarriak jartzea).

a.12.– On site edo in site teknikak aplikatzea, jardunean dauden enpresen lurzoru eraldatuen kalitatea hobetzeko.

a.13.– Hondeatutako lurak biltegitratzeko eta, ondoren, berrerabiltzeko edo balioztatzeke erabiltzeko diren kokalekuak egokitzeko inbertsioak edo neurriak.

a.14.– Aginduan eta hura garatzen duen dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainerakoak.

b) Batasunaren geroko arauetara aurrez egokitzeko laguntzak. Hoge mila (20.000) euro.

c) Ingurumen-azterketak egiteko laguntzak. Ehun eta hirurogei (160.000) mila euro.

d) Hirugarrenek sortutako hondakinen birziklapenerako eta berrerabilpenerako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, betiere, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 2. artikuluko 4. puntuko baldintza metagarriak betetzen badira: Berrehun eta hoge mila (220.000) euro.

d.1.– Plastikoak identifikatzeko eta bereizteke inbertsioak, hobeto birziklatzea xede; batez ere,ugar-atzeratzaile bromatudun plastikoak.

d.2.– Bizitzaren amaieran dauden ibilgailuetako hondakinak birziklatzera eta balorizatzerabideratutako inbertsioak, bai eta produktuak, osagaiak eta piezak konpondu, berregokitu eta birmanufakturatzerabideratutakoak ere, bereziki, tresna elektriko-elektronikoen hondakinenak, edo produktuak (serie handikoak) konposite birziklatuetan oinarrituta fabrikatzera bideratutakoak.

d.3.– Inbertsioak balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak eta itsasontziak desmuntatzeko eta deskutsatzeko ekipamenduetan/makinetan, deskutsatzea hobetzeko eta osagaiak berrerabiltzea eta eragiketa horietatik eratorritako hondakinak birziklatzea eta balorizatzea sustatzeko.

d.4.– Inbertsioak eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak nahastea galarazteko eta nahastuta egon daitezkeen hondakin horiek bereizi ahal izateko –bereizketaren ondoriozko frakzioak balorizatu ahal daitezen– gailuetan/makinetan.

d.5.– Plastikohondakinak eraldatzen edo kudeatzen dituzten industrietan, inbertsioak egitea galautsa eta mikroplastikoak biltzeko, biltegitratzeko eta horien isurketak prebenitzeko ekipamenduetan; besteak beste, xurgagailuetan, kale-garbigailuetan eta bilgailuetan, bai eta babes-hesietan ere, arrisku handien dagoen tokietan, hala nola ura biltzeko kutxatiletan.

d.6.– Ibilgailuak konpontzeko lantegietan osagaien konponketa aurreratua egiteko beharrezko ekipoa eta aktiboak (Ni-MH bateria hibridoak edo antzekoak mantentzeko eta berreskuratzeko diagnostiko-ekipoak, plastikozko pieza espezifikotarako edo errekontza-ibilgailua ibilgailu elektriko bihurtzeko euskailuetarako 3D inprimagailuak, ECUak birprogramatzeko ekipoak (PC-a eta Pass-thru komunikazio interfazea duen kanpoko bateria-sistema barne), injektore piezoelektrikoak eta EGR balbulak diagnostikatzeko ekipoak, pieza plastikoak eta aluminiozkoak konpontzeko ekipoak).

d.7.– Aginduan eta hura garatzen duen dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainerakoak.

e) Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera. Laurogeita bost mila (85.000) euro.

f) ETEen kasuan, ingurumen-arloko kanpo-aholkularitzako zerbitzuetatik eratorritako kanpo-kostuak finantzatzeko laguntzak. Laurogeita bost mila (85.000) euro.

f.1.– EMAS Ingurumenaren Kudeaketako Europako Sistemaren Erregistroan inskribatzeko laguntzak.

f.2.– EMAS Erregistroa berritzeko laguntzak.

f.3.– Laguntzak hauetarako: Ekodiseinuko UNE-EN ISO 14006 Araua ezartzeko eta ziurtatzeko; hirugarren batek produktuak, antolamenduak edo zerbitzuak duen ingurumen-inpaktua –bizi-zikloaren ikuspegia duten metodologia normalizatuen bidez– zehaztu eta egiaztatzeko, eta hirugarren batek egiazta ditzakeen aitortzen lortzeko, hala nola ingurumen-aztarnak eta ekoetiketak (I. mota edo III. motako produktuaren ingurumen-adierazpenak).

f.4.– Kutsa dezaketen jarduerak izan dituen lurzoruen kalitatea aitortzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera.

f.5.– Piezetan eta produktuetan bigarren mailako plastikoa sartzeko saiakuntzak eta homologazioak.

f.6.– Hondakinak balorizatzeko eragiketetan kalitate-sistema egiaztagarriak ezartzeko laguntzak, hondakin batek hondakin izateari noiz uzten dion zehazten duten Europako erregelamenduetan eta ministerio-aginduetan adierazitako irizpideak betetzen direla frogatu ahal izateko sistemak, hain zuzen.

f.7.– Hondakinak balorizatzeko eta ezabatzeko eragiketekin zerikusia duen informazioaren kudeaketa informatizatzeko laguntzak; eragiketa horiek hondakinaren kudeaketa egiaztatzea ahalbidetzen diete ekoizleei eta hondakinetatik datozen produktuen jatorria egiaztatzea kontsumitzaileei.

3.– Eskabide gutxi aurkezteagatik edota eskakizunak ez betetzeagatik, adierazitako lerroren edo azpilerroren baterako esleitutako diru kopurua agortzen ez bada, sobera dagoen diru kopuruarekin beste esleipen-lerroren edo azpilerroren batera zuzendutako kopurua handitu daiteke, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordeak horretarako ebazpen bat emanda, balorazio-epaimahaiak proposatu ondoren, eta aurkeztutako eskabide kopuruaren arabera.

6. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

7. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak bide elektronikoetatik bakarrik egin ahalko dira. Eskabideak izapidetzearen ingurukoan, erantzukizunpeko adierazpenen eta gainerako ereduaren gaineko zehaztapenak eskuragarri daude Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan.

Prozedura arrunta: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1026409>

Prozedura sinplifikatua: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1026509>

Eskabidearen ondorengo izapideak ere, jakinarazpenak barne, elektronikoki egingo dira egoitza elektronikoko «Nire Karpeta» erabilita, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bideak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

2.– Eskabidea ordezkari baten bitartez aurkezten bada, ordezkaritza justifikatu beharko da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Ordezkaritza Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistroan inskribatu ahal izango da. Hona hemen Erregistrora sartzeko esteka: <https://www.euskadi.eus/ordezkaririk>

3.– Eskabideari jarraian adierazten den dokumentazioa erantsi beharko zaio:

– Erantzukizunpeko adierazpena, erakundean ahalak dituen pertsona batek sinatua, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 11.4 artikuluan eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarritakoaren arabera.

– «Proiektuaren datuak» formularioa.

– «Aurrekontuaren eta diruz lagundu daitezkeen kostuak» formularioa. Europar Batasuneko arauen babes-maila baino goragoko bat emateko, araurik ez dagoenean babes-maila areagotzeko edo etorkizuneko arauetarako egokitzapena aurreratzeko eta lur kutsatuak oneratzeko inbertsio-eskaeretan, diruz lagun daitezkeen kostuak zehaztu beharko dira Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 6. artikuluan eta II. eranskinean zehaztutakoekin bat. Hondakinak birziklatzeko eta berrerabiltzeko inbertsioetarako eskabideekin batera, eskatzailearen erabakia justifikatzeko azterlan ekonomikoa aurkeztu beharko da.



– Aukeran, eta formularioko puntuak argitzeko asmoz, proiektua azaltzeko txosten bat, aurrekontuak edo eskatzaileak interesekotzat jotzen duen gainerako dokumentazioa aurkeztu ahalko da.

4.– Zure datu pertsonalak tratatu egingo dira eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: Enpresei dirulaguntzak ematea ingurumena babesteko inbertsioak egiteko.

Arduraduna: Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza, Ekonomia-ren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.

Helburua: enpresei dirulaguntzak ematea ingurumena babesteko inbertsioak egiteko.

Legitimazioa: interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko beharrezkoa den tratamendua.

Hartzaileak: ez da aurreikusten datuen komunikaziorik.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren beste batzuk.

Informazio gehigarria: gure webgunean kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta xehatua:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/094000-ca-pa2-eu.shtml>

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/%20HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa ([www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673](http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)).

8. artikulua.– Eskabidea zuzentzea.

Dirulaguntzaren eskabidean ez badira betetzen aurreko artikuluan eskatutako baldintzak edo aplikagarriak diren lege espezifikoetan eskatutakoak, hamar egun balioduneko epe luzaezinean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eransteke eskatuko zaio interresdunari, eta, era berean, jakinaraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, deialdia ebazteko organo eskudunak horretarako ebazpena eman ondoren.

9. artikulua.– Baztertzeak.

Ez dira diruz lagunduko dagokion eskabidea aurkeztu aurretik egindako inbertsioekin lotutako proiektuak.

10. artikulua.– Esleitzeko eta baloratzeko irizpideak.

Prozedura arruntaren bidez esleipenak ondoren adierazitako balorazio-irizpideen arabera egingo dira:

a) Industria-jarduerak ingurumenean daukan eraginari dagokionez, ondorengo sektoreetan barne hartutako instalazioekin lotuta egindako inbertsioak baloratuko dira, ingurumenean eragin handiena daukaten sektoreetako batzuk direlako: galdaketa, altzairugintza, beroko ijezketa,

zementua, beira, zeramika, karea, hondakinen kudeatzaileak, gainazaleko tratamenduak, beroko galvanizazioa, oregintza-papergintza eta sektore kimikoa. Halaber, indarrean dagoen Ingurumen Esparru Programaren helburuei egindako ekarpena ere baloratuko da.

b) Egingo den inbertsioak ekarriko duen ingurumen-hobekuntza eta ekoeraginkortasuna zehazteari dagokionez, zein motatakoa den baloratuko da, argi bereizita «hodi-bukaerakoak» izenez ezagutzen diren proiektuak egingo diren, alegia, emisio kutsagarriak tratatzekoak, edo emisiorik ez sortzeko proiektuak. Era berean, hobekuntza era absolutuan eta erlatiboan kuantifikatuta hartuko da aintzat, baita kutsagarri arriskutsuenak gutxitzeko zer-nolako hobekuntza lortu den ere.

c) Inbertsioak egitea honakoak eragiten dituzten instalazioetan: basoko hegaztiak kontserbatzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentarauan eta Habitat naturalak eta basoko fauna eta flora zaintzeari buruzko Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauan aipatzen diren eremu kalteberak; Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen arabera babestuta dauden naturaguneak, edo hiriguneak. Proiektuak espazio horiekiko duen hurbiltasuna eta ingurumen-interesa baloratuko dira.

d) Proiektuaren ekoberrikuntzari dagokionez, haren berrikuntza-maila eta transferigarritasuna hartuko dira kontuan. Zehazki, Teknologia Garbien Euskal Zerrendan jasotako teknologia guztiak berrizaitzat joko dira, ezer gehiago justifikatu behar izan gabe.

e) Proiektuaren koherentzia eta kalitatea: baloratuko da enpresak ingurumen-arloko problematika zehatza adierazten duen barne-diagnostikorik izatea, eta proiektuan erabiliko den konponbidea behar bezala justifikatuta egotea.

f) Laguntzak eskatzen dituzten pertsona juridikoen euren enpresa txikia edo ertaina dela egiaztatzea, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioan, mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainaren definizioari buruz ezarritakoa betez.

g) Inbertsioa gauzatzen den tokian ingurumen-kudeaketako sistemen (SGMA) baliozko ziurtagiriak izatearen egiaztatpena.

h) Plantilla kudeatzeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat izatea, Estatuko araudiaren arabera indarrean dagoen berdintasun-planik izateko betebeharra ez duten erakundeentzat, edo «Emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzailea» dela aitortzen duen dokumentua izatea edo ibilbidea izatea emakumeen eta gizonen berdintasunerako bideratutako politikak edo jarduketak burutzen.

#### 11. artikulua.– Prozedura arrunterako haztatzea.

1.– Agindu honetako 10. artikuluan jasotako balorazio-irizpideak norgehiagokako esleipen arrunteko prozeduran parte hartzen duten eskabideei bakarrik aplikatuko zaizkie, eta guztira 100 punturekin haztatuko dira. Irizpide horiek honela banatuko dira:

Industria-jarduerak ingurumenean daukan eragina: – Aginduko lehentasunezko sektoreak: 5. – IEPren helburuei egindako ekarpena: 5.	10 puntu
Aurreikusitako inbertsioak ingurumenean egingo duen hobekuntza: – Hobekuntza mota: 10. – Kuantifikazio absolutua: 10. – Kuantifikazio erlatiboa: 20.	40 puntu
Azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentarauko (maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentaruak) eremu sentikorretan eta azaroaren 25eko 9/2021 Legearen arabera babestutako naturaguneetan eragina duten instalazioetan inbertsioak egitea.	5 puntu
Proiektuaren koherentzia eta kalitatea.	10 puntu
Proiektua ekologiararen aldetik berritzailea izatea.	15 puntu
2003ko maiatzaren 6ko Gomendioaren arabera ETE edo mikro ETE gisa kalifikatutako enpresak: – Ertaina: 5. – Txikia: 10. – Mikro ETEa: 12.	12 puntu
Ingurumen-kudeaketako sistemak, gehienez ere 5 puntu: – ISO 14.001: 3. – EMAS: 5. – UNE-EN-ISO 14006: 5.	5 puntu
Emakume eta gizonen berdintasun-arloko jarduketak.	3 puntu
Guztira.	100 puntu

2.– Ondorengo artikuluan ezarritako esleipen-irizpideen arabera, gutxienez 100 puntutik 55 lortzen dituzten eskaerek dirulaguntza jasotzeko aukera izango dute.

12. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa eta esleipen-irizpideak.

1.– Salbuespenezko egoeretan izan ezik, ez dira gaindituko Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 1. eranskinean ezarritako gehieneko portzentajeak.

2.– Prozedura arruntan, zenbatekoa hainbanaketa bidez zehaztuko da, honako hauen arabera:

- a) Proiektuaren puntuazioa, aurreko artikuluen arabera haztapena aplikatuta.
- b) Proiektuetako inbertsio garbiaren zenbatekoak.

Dirulaguntzak ezingo dira inola ere berrehun mila (200.000) euro baino handiagoak izan proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko, inbertsioen eta lurren saneamenduaren kasuan, ezta berrogeita hamar mila (50.000) euro baino handiagoak ere, azterlanen kasuan.

Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako Planean ezarritako helburuei erantzuten dieten inbertsioen kasuan, proiektu bati eman beharreko gehieneko zenbatekoa gainditu ahal izango da, betiere artikuluko honetako 1. zenbakian aurreikusitakoa errespetatzen bada.

Aurreko artikuluan adierazitako gutxieneko puntuazioa gainditu arren gutxienez hiru mila (3.000) euroko dirulaguntzara iristen diren proiektuak bakarrik lagunduko dira diruz.

3.– Prozedura sinplifikatuan, honako hauen arabera zehaztuko da zenbatekoa:

- a) Proiektuetako inbertsio garbiaren zenbatekoak.
- b) Ildo bakoitzerako erabilgarri dagoen aurrekontu-esleipena, diruz lagundu beharreko proiektuen artean zatituta.

Gehieneko zenbatekoa honako hau izango da:

a) Ingurumenaren babeserako Batasunaren arauetan ezarritako babes-maila baino handiagoa ematera bideratutako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumenaren babes-maila handitzen dutenak.

a.1.– Usainen jariatzea murrizteko inbertsioak. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/ edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.2.– Konposatu organiko lurrunkorren eta konposatu organiko iraunkorren multzoaren barruan kezka sortzen ari diren kutsatzaileen emisioak arazteko edo tratatzeko sistemetan egindako inbertsioak. Hogei mila (20.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.3.– Galdategiko emisio barreiatuak minimizatzea nabea itxiz, emisio horiek konfinatuz eta xurgatuz. Hogei mila (20.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.4.– Inbertsioak partikulen emisio barreiatuak kontrolatzeko sistemetan, in situ jarritako sensoreetan eta etengabeko jarraipena eta berehalako jarduerak egitera bideratutako teknologia berrietan oinarritutako sistemetan, hain zuzen. Hogeita hamar mila (30.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.5.– Hondakinak balorizatzeko instalazio berrietarako inbertsioak, Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Planean finkatutako helburuak lortu ahal izateko. Berrehun mila (200.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.6.– Inbertsioak edo ekoizte-prozesua egokitzeko neurriak, Europako zerrendako material kritikoak eta beste metal nagusi batzuk murriztera, berrerabiltzera eta birziklatzera bideratuak. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/ edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.7.– Egiturazko zuntz-zementua kentzera bideratutako jarduketak, ez direnean nahitaez egin beharrekoak, hau da, dena delako udalak ez badu 2024 ekitaldirako planifikatu hura kentzea. Berrogei mila (40.000) euro proiektu eta ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.8.– Erregai alternatiboen ezaugarriekin alderatuta (HEH, HSB) BAT altua duten hondakinak nazioarteko arauen baldintzetara eta/edo erregaiaren eroslearen edo azken erabiltzailearen arauen baldintzetara egokitzeko inbertsioak, baldin eta, hondakinak kudeatzeko hierarkiaren ikuspuntutik, errekuntza baino balorizazio modu hoberik ez badago. Berrogei mila (40.000) euro proiektuko eta hirurogei mila (60.000) euro ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.9.– Hondakinak prebenitzeko eta minimizatzeke eta hondakinak berrerabiltzeko prestatzeko eragiketak (PXR) ezartzeko edo egokitzeko inbertsioak, besteak beste, zenbait produkturen konponketa, berregokitzapena eta birmanufaktura erraztera bideratutakoak, hain zuzen, erabiltzen ez diren ibilgailuen produktuak (ekipoak, osagaiak eta piezak), tresna elektriko eta elektronikoak eta konpositak. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.10.– Edariak erabilera bakarreko ontzietan ontziratzen dituzten fabrikak edariak ontzi berrerabilgarrietan ontziratzen dituzten fabrika bihurtzeko inbertsioak eta norberaren ontziak edo hirugarrenenak garbitzeko sistemetarako eta ontziak berrerabiltzeko behar diren instalazio lagungarrietarako inbertsioak. Hogei mila (20.000) euro proiektuko eta hogeita hamar mila (30.000) euro ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.11.– Birziklatu ezin diren kutxak eta/edo ontziak edo erabilera bakarreko ontziak ontzi berrerabilgarriekin ordezteko inbertsioak (adibidez, arraina ontziratzeke poliestireno hedatuaren ordezkutxa berrerabilgarriak jartzea). Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/ edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.12.– On site edo in site teknikak aplikatzea, jardunean dauden enpresen lurzoru eraldatuaren kalitatea hobetzeko. Hogei mila (20.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.13.– Hondeatutako lurak biltegitzeko eta, ondoren, berrerabiltzeko edo balioztatzeko erabilerako diren kokalekuak egokitzeko inbertsioak edo neurriak. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.14.– Aginduan eta hura garatzen duen dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainerakoak. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

b) Batasunaren geroko arauetara aurrez egokitzeko laguntzak. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

c) Ingurumen-azterketak egiteko laguntzak. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

d) Hirugarrenek sortutako hondakinen birziklapenerako eta berrerabilpenerako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, betiere, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 2. artikuluko 4. puntuko baldintza metagarriak betetzen badira:

d.1.– Plastikoa identifikatzeko eta bereizteko inbertsioak, hobeto birziklatzea xede; batez ere, sugar-atzeratzaile bromatudun plastikoa. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

d.2.– Bizitzaren amaieran dauden ibilgailuetako hondakinak birziklatzera eta balorizatzen bideratutako inbertsioak, bai eta produktuak, osagaiak eta pieza konpondu, berregokitu eta birmanufakturatzen bideratutakoak ere, bereziki, tresna elektriko-elektronikoen hondakinenak, edo produktuak (serie handikoak) konposate birziklatuetan oinarrituta fabrikatzera bideratutakoak. Bost mila (5.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

d.3.– Inbertsioak balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak eta itsasontziak desmuntatzeko eta deskutsatzeko ekipamenduetan/makinetan, deskutsatzea hobetzeko eta osagaiak berrerabiltzea eta eragiketa horietatik eratorritako hondakinak birziklatzea eta balorizatzea sustatzeko. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

d.4.– Inbertsioak eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak nahastea galarazteko eta nahastuta egon daitezkeen hondakin horiek bereizi ahal izateko –bereizketaren ondoriozko frakzioak balorizatu ahal daitezkeen– gailuetan/makinetan. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

d.5.– Plastikoa hondakinak eraldatzen edo kudeatzen dituzten industrietan, inbertsioak egitea galautsa eta mikroplastikoa biltzeko, biltegitzeko eta horien isurketak prebenitzeko ekipamenduetan; besteak beste, xurgagailuetan, kale-garbigailuetan eta bilgailuetan, bai eta babes-hesietan ere, arrisku handien dagoen tokietan, hala nola ura biltzeko kutxatiletan. Hamar mila (15.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

d.6.– Ibilgailuak konpontzeko lantegietan osagaien konponketa aurreratua egiteko beharrezko ekipoa eta aktiboak (Ni-MH bateria hibridoak edo antzekoak mantentzeko eta berreskuratzeko diagnostiko-ekipoak, plastikozko pieza espezifikotarako edo erreparazio-ibilgailua ibilgailu elektriko bihurtzeko euskailuetarako 3D inprimagailuak, ECUak birprogramatzeko ekipoa (PC-a eta Pass-thru komunikazio interfazea duen kanpoko bateria-sistema barne), injektore piezoelektrikoak eta EGR balbulak diagnostikatzeko ekipoa, pieza plastikoa eta aluminiozkoak konpontzeko ekipoa). Zortzi mila (8.000) euro.

d.7.– Aginduan eta hura garatzen duen dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainerakoak. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

e) Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera. Sei mila (6.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

f) ETEen kasuan, ingurumen-arloko kanpo-aholkularitzako zerbitzuetatik eratorritako kanpo-kostuak finantzatzeko laguntzak. Deialdi honetan azpillerro hauek bakarrik lagunduko dira diruz:

f.1.– EMAS Ingurumenaren Kudeaketako Europako Sistemaren Erregistroan inskribatzeko laguntzak. Sei mila (6.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

f.2.– EMAS Erregistroa berritzeko laguntzak. Hiru mila (3.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

f.3.– Laguntzak hauetarako: Ekodiseinuko UNE-EN ISO 14006 Araua ezartzeko eta ziurtatzeko; hirugarren batek produktuak, antolamenduak edo zerbitzuak duen ingurumen-inpaktua –bizi-zikloaren ikuspegia duten metodologia normalizatuen bidez– zehaztu eta egiaztatzeak, eta hirugarren batek egiazta ditzakeen aitortpenak lortzeko, hala nola ingurumen-aztarnak eta ekoetiketak (I. mota edo III. motako produktuaren ingurumen-adierazpenak). Hamabost mila (15.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

f.4.– Kutsa dezaketen jarduerak izan dituen lurzoruaren kalitatea aitortzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

f.5.– Piezetan eta produktuetan bigarren mailako plastikoa sartzeko saiakuntzak eta homologazioak. Bost mila (5.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

f.6.– Hondakinak balorizatzeko eragiketetan kalitate-sistema egiaztagarriak ezartzeko laguntzak, hondakin batek hondakin izateari noiz uzten dion zehazten duten Europako erregelamenduetan eta ministerio-aginduetan adierazitako irizpideak betetzen direla frogatu ahal izateko sistemak. Bi mila eta bostehun (2.500) euro.

f.7.– Hondakinak balorizatzeko eta ezabatzeko eragiketekin zerikusia duen informazioaren kudeaketa informatizatzeko laguntzak; eragiketa horiek hondakinen kudeaketa egiaztatzea ahalbidetzen diete ekoizleei eta hondakinetatik datozen produktuen jatorria egiaztatzea kontsumitzaileei. Bost mila (5.000) euro.

4.– Diruz lagun daitekeen kostua zehazteko, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 6.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, balorazio-epaimahaiak eskatzaileak adierazitako inbertsio garbia doitu ahal izango du, bai entitate eskatzaileak emandako dokumentazioa eta datuak, bai merkatuko batezbesteko balioak/prezioak eta eskura daukan gainerako informazioa kontuan hartuta.

Erakunde eskatzaileak aurkeztutako inbertsio garbiaren eta egindako inbertsio garbiaren kalkularen artean % 50etik gorako aldea baldin badago, organo kudeatzaileak erakunde eskatzaileari egindako inbertsio garbiaren kalkularen emaitza jakinaraziko dio, baita hori zehazteko kontuan hartutako datuak ere, eta 10 eguneko epea emango dio egokitze josten dituen alegazioak aurkeztu ditzan, hala nahi izanez gero.

### 13. artikulua.– Dirulaguntzak kudeatzen dituen organoa.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza arduratuko da deialdi honetan jasotako laguntzak kudeatzeaz eta aurkezten diren eskabideak aztertu eta ebaluatzeaz.

### 14. artikulua.– Erakunde laguntzailea.

1.– Agindu honetan arautzen diren dirulaguntzak kudeatzeko, Ihobe SA, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa erakunde laguntzaile izendatzen da, honako hauek ezarritakoarekin bat: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua; eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua.

2.– Ihobe SA-k, erakunde laguntzailea den heinean, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 15.2 artikuluan deskribatutako funtzioak egingo ditu, aipatutako sozietate publikoari programa eta jarduera jakin batzuk egiteko ardura ematen zaion urteko ebazpenean eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 8/2003 Legean ezarritakoa betetzeko sinatzen den hitzarmenean aurreikusitako baldintzen arabera.

### 15. artikulua.– Ebazpena.

1.– Esleipen-prozedura bakoitzean hartzen den ebazpena egoitza elektronikoko «nire karpeta» zerbitzuaren bidez eman eta jakinaraziko zaie interesdunei, gehienez ere sei hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Epe hori igarota interesdunak ebazpenik jasoko ez balu, kasuan kasuko eskabidea ezeztatzen joko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Dirulaguntzak emateko prozeduraren ebazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, publizitate-ondorioetarako.

Norgehiagoka-prozedura arruntaren bidez ematen diren dirulaguntzen kasuan, jakinarazpena argitaratzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

### 16. artikulua.– Baldintzen agiria.

Proiektu bakoitzaren bereizgarriari erreparatuta, hala dagokionean, diruz lagundutako proiektua gauzatu ahal izateko nahitaez bete beharreko baldintza teknikoak eta ekonomikoak ezarriko dira. Baldintza horiek erakunde onuradunei banan-banan helaraziko zaien baldintzen agiri batean jasoko dira, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren urteko aginduaren arabera diruz lagundutako proiektuen betekizun orokorrak «Diruz lagundutako proiektuak justifikatzeko oinarritzko gida» agirian daude jasota. Hemen dago eskura: prozedura arruntari dagozkionak, <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1026409> helbidean, eta prozedura sinplifikatuari dagokionak, <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1026509> helbidean.

#### 17. artikulua.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, hala xedatzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta ondorengoetan. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.

#### LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honen bidez deitutako dirulaguntzei arau hauek aplikatuko zaizkie: Ingurumena babes-teko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena.

#### BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako gastu-espeditenteak aurretiaz izapidetzea arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, agindu honetako laguntzak ebazteko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da Euskal Autonomia Erkidegoaren 2024ko aurrekontu orokorretan.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 19a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.